

BALOREZKO PROPOSAMENA

GAIU izeneko enpresa berritzaile honek, hainbat onura eskainiko dizkio erosleari baita gizarte zein ingurumenari lagundu ere.

Hasteko; ideian aipatu bezala, bezeroei tresna edo **produktu pertsonalizatua** eta bakarra eskainiko diegu. Honekin; erosleak aukera izango du **eskuz** eta maitasunez eginiko produktu bat erosteko, eta ez orain arte ohikoak diren produktu komertzialak.

Honez gain; aukera izango du bezeroak **diseinu berezi bat** eskatzeko, edo bere izena jartzeko. Baita ere; kolorea, tamaina, inizialak, etab. Horrek; bezeroari **sentsazio berezia** emateaz gain, guretzat garrantzitsuak direla ere ulertuko dute.



Aldi berean; **ez dugu genero bereizketarik egingo** gure produktuekin. Ez ditugu gizonezko edo emakumeentzako produktu bereziak egingo. Horrela; bezero guztiek aukera berdina izango dute tresneria edo objektu bakoitza aukeratzeko. Azken finean; ez gara bezero espezifiko batean zentratuko, horrela, merkatua zabala izango dugu.

Guzti honekin batera; ingurunearen babesarekin **kontzientziatu** nahi ditugu gure bezeroak. **Aldaketa klimatikoa** gero eta azkarrago bait doa eta guk lan handia dugu hori geldotzeko edo murrizteko. Beraz; **plastikoaren erabilera ahal den einean murriztuko dugu**, eta gutxien kutsatzen duten materialaren bitartez sortutako produktuak egiten ahaleginduko gara.



Azken finean; egunerokotasunerako produktuak sortuko ditugu. Beraz; gure nahia **errosoak eta erabilgarriak izatea** da. Beraz; egunero etxean erabiltzeko zein bidaiatzeko errosoak izatea da gure helburua.

Orokorrean; uste dugu ideia berritzaile eta desberdin bat sortu dugula, bezeroak gure taldeko kide hartuz eta beraiei zein ingurumenari lagunduz.